

11-25/LEY-00009. Calendario para la tramitación del proyecto de Ley Foral de Presupuestos Generales de Navarra para el año 2026

En sesión celebrada el día 3 de noviembre de 2025, la Mesa del Parlamento de Navarra adoptó, entre otros, el siguiente Acuerdo:

Primero.- Aprobar el calendario para la tramitación del proyecto de Ley Foral de Presupuestos Generales de Navarra para el año 2026, según se expresa en el apartado siguiente y cuyo resumen es el que se indica a continuación:

* Registro de entrada del proyecto de Ley Foral: 31 de octubre.

* Admisión a trámite (Mesa y Junta de Portavoces): 3 de noviembre.

* Publicación del proyecto: 5 de noviembre.

* Reunión sobre programa de confección de enmiendas: 5 de noviembre, a las 9:00 horas.

* Sesión de trabajo de la Comisión de Economía y Hacienda: 7 de noviembre, a las 12:15 horas.

* Fin presentación enmiendas a la totalidad: 13 de noviembre, a las 12:00 horas.

* Admisión enmiendas a la totalidad: 13 de noviembre (hora a determinar por la Mesa de la Comisión).

* Publicación enmiendas a la totalidad: 18 de noviembre.

* Pleno totalidad: 20 de noviembre, a las 9:30 horas.

* Fin presentación enmiendas parciales: 20 de noviembre, a las 17:30 horas.

* Ordenación enmiendas parciales: 21 de noviembre (hora a determinar por la Mesa de la Comisión).

* Gobierno: del 21 al 27 de noviembre.

* Admisión enmiendas parciales: 28 de noviembre (antes de las 12:00 horas, a determinar por la Mesa de la Comisión).

* Publicación enmiendas al articulado y partidas presupuestarias: 1 de diciembre.

* Fin plazo para interponer recurso: 1 de diciembre, a las 9:30 horas.

* Junta de Portavoces resolviendo sobre el recurso: 1 de diciembre.

* Debate en Comisión: 1 al 12 de diciembre.

* Aprobación dictamen: 15 de diciembre.

* Fin mantenimiento enmiendas y votos particulares: 16 de diciembre, a las 17:30 horas.

* Mesa de la Cámara para darse por enterada de las enmiendas mantenidas y votos particulares: 17 de diciembre, a las 10:00 horas.

* Escrito remitido por e-mail a la Letrada Mayor comunicando los bloques de votación que se solicitan sobre las enmiendas mantenidas y votos particulares: 17 de diciembre, a las 14:00 horas.

* Publicación del dictamen junto con las enmiendas y votos particulares: 18 de diciembre.

* Pleno: 18 de diciembre, a las 9:30 horas.

Segundo.- 1. Publicado el proyecto de Ley Foral de Presupuestos Generales de Navarra para el año 2026 en el Boletín Oficial del Parlamento de Navarra de 5 de noviembre, finalizará el plazo de presentación de enmiendas a la totalidad el 13 de noviembre, a las 12:00 horas, y al articulado y a las partidas presupuestarias el día 20 de noviembre, a las 17:30 horas.

2. Dentro de ese plazo de presentación de enmiendas, se convocará sesión de trabajo de la Comisión de Economía y Hacienda, a la cual acudirán el Consejero de Economía y Hacienda acompañado de los Directores Generales y de los Técnicos que estime conveniente, el día 7 de noviembre a las 12:15 horas.

3. Si hubiere enmiendas a la totalidad, la Mesa de la Comisión de Economía y Hacienda procederá a admitirlas a trámite y elevarlas a la Presidencia del Parlamento el día 13 de noviembre. El debate y votación de las enmiendas a la totalidad, si las hubiere, se celebrará en la sesión plenaria del día 20 de noviembre.

4. El día 21 de noviembre, la Mesa de la Comisión de Economía y Hacienda procederá a la ordenación de las enmiendas presentadas al articulado y a las partidas presupuestarias y, en su caso, a la remisión al Gobierno de Navarra de aquellas enmiendas que supongan aumento de gastos o disminución de ingresos en los términos establecidos en el artículo 176 y concordantes del Reglamento de la Cámara.

5. El día 28 de noviembre, la Mesa de la Comisión procederá a la admisión de las enmiendas y, en su caso, de las informadas por el Gobierno de Navarra. Contra el acuerdo de la Mesa de la Comisión que inadmita a trámite enmiendas cabrá

recurso ante la Junta de Portavoces de conformidad con el artículo 149.2 y 176.3 del Reglamento. El plazo para interponer el recurso finalizará el día 1 de diciembre, a las 9:30 horas.

6. El día 1 de diciembre, la Comisión de Economía y Hacienda iniciará su sesión, debiendo finalizar sus debates el día 12 de diciembre, aprobando el dictamen del proyecto el 15 de diciembre.

7. El plazo para el mantenimiento de enmiendas y votos particulares finalizará a las 17:30 horas del día 16 de diciembre.

8. El día 17 de diciembre, la Mesa de la Cámara se dará por enterada de las enmiendas mantenidas y votos particulares en los términos establecidos en

el artículo 159 del Reglamento de la Cámara y dará traslado a las y los miembros del Pleno.

9. En la sesión plenaria del día 18 de diciembre de 2025 se procederá al debate y votación del proyecto de Ley Foral de Presupuestos Generales de Navarra para el año 2026.

Tercero.- Dar traslado del presente Acuerdo a las y los portavoces de los Grupos Parlamentarios, a las y los miembros de la Mesa de la Comisión de Economía y Hacienda y al Gobierno de Navarra y publicar el mismo en el Boletín Oficial del Parlamento de Navarra.

Pamplona, 3 de noviembre de 2025

El Presidente: Unai Hualde Iglesias

11-25/LEY-00009. Normas para el debate y votación del proyecto de Ley Foral de Presupuestos Generales de Navarra para el año 2026

En sesión celebrada el día 3 de noviembre de 2025 la Mesa del Parlamento de Navarra, de acuerdo con la Junta de Portavoces, adoptó, entre otros, el siguiente Acuerdo:

Visto el proyecto de Ley Foral de Presupuestos Generales de Navarra para el año 2026, remitido a la Cámara por Acuerdo del Gobierno de Navarra de 31 de octubre de 2025 y con entrada en el Registro General del Parlamento el día 31 de octubre, de conformidad con los artículos 174 y 177 del Reglamento, SE ACUERDA:

Primero.- Aprobar las siguientes Normas para el debate y votación del Proyecto de Ley Foral de Presupuestos Generales de Navarra para el año 2026, en lo sucesivo el Proyecto.

1.^a El Proyecto, después de su admisión a trámite por la Mesa, será dictaminado por la Comisión de Economía y Hacienda a la que se dará traslado del mismo.

2.^a El Proyecto será publicado en el Boletín Oficial de la Cámara, disponiéndose que, con su publicación, se abrirá un plazo que finalizará el día 13 de noviembre de 2025, a las 12:00 horas, durante el cual los Grupos Parlamentarios y los Parlamentarios y Parlamentarias Forales a título individual podrán formular enmiendas a la totalidad, y otro plazo que finalizará el día 20 de noviembre de 2025, a las 17:30 horas, durante el cual podrán formular enmiendas al articulado y a las partidas presupuestarias, teniendo en cuenta lo dispuesto en la

norma 3.^a. Las citadas enmiendas se dirigirán a la Mesa de la Comisión de Economía y Hacienda.

3.^a Las enmiendas podrán ser:

a) A la totalidad del Proyecto, propugnando su devolución al Gobierno de Navarra y encomendando a este la elaboración de un Proyecto basado en principios distintos a aquellos que sirvieron de base al Proyecto inicial.

Las enmiendas que afecten al conjunto de programas de un Departamento o de una entidad de los que figuran en la Correlación Programa-Económica, deberán plantearse como enmiendas a la totalidad de devolución.

La formulación de las enmiendas a la totalidad se realizará a través de la plantilla de Word llamada "2026_CrearEnmiendasArticulado". En la confección de estas enmiendas se seguirán las instrucciones que figuran en el Anexo I.

b) A cualquiera de los artículos del Proyecto.

La formulación de las enmiendas al articulado se realizará a través de la plantilla de Word llamada "2026_CrearEnmiendasArticulado". En la confección de estas enmiendas se seguirán las instrucciones que figuran en el Anexo I.

c) A cualquiera de los "Programas", "Proyectos" o "Partidas" comprendidos en el Proyecto.

La formulación de las enmiendas a las partidas presupuestarias se realizará a través de la

aplicación informática “2026_CrearEnmiendasPartidas.ACCDB”. En la confección de estas enmiendas se seguirán las instrucciones que figuran en el Anexo I.

4.^a Las enmiendas que supongan aumento de gastos o disminución de ingresos en algún concepto requerirán, para su admisión a trámite, la previa conformidad del Gobierno de Navarra. No obstante, no será preceptiva dicha conformidad cuando en la enmienda presentada se especifiquen los recursos ya consignados en el Proyecto, que hayan de financiar el aumento del gasto o la disminución del ingreso.

Las enmiendas “in voce” que se presenten en Comisión que supongan aumento del gasto o disminución de ingresos en algún concepto, requerirán la previa conformidad del Gobierno de Navarra para su admisión a trámite, para lo que se concederá un plazo mínimo de un día, a determinar por la Mesa. La ausencia de contestación del Gobierno de Navarra en dicho plazo se entenderá como conformidad a su tramitación.

No obstante, no será preceptiva dicha conformidad cuando en la enmienda presentada se especifiquen los recursos, ya consignados en el proyecto, que hayan de financiar el aumento del gasto o la disminución del ingreso según dispone el artículo 176.2 del Reglamento.

5.^a Las enmiendas que se presenten al Proyecto en ningún caso podrán proponer una reducción en la consignación prevista para los créditos ampliables contemplados en las letras a), b), c) y e) del apartado 1 del artículo 47 de la Ley Foral 13/2007, de 4 de abril, de la Hacienda Pública de Navarra, y de presentarse alguna será inadmitida.

6.^a Antes de concluir el plazo de presentación de enmiendas, la Presidencia del Parlamento convocará sesión de trabajo de la Comisión de Economía y Hacienda con el Consejero responsable del ramo, quien podrá acudir a la misma asistido de los Directores Generales y del personal técnico que estime oportuno.

7.^a Si se hubiesen presentado enmiendas a la totalidad, la Mesa de la Comisión se pronunciará sobre su admisión a trámite, y la Presidencia de la Comisión las trasladará a la Presidencia del Parlamento para su inclusión en el orden del día de la sesión plenaria en que hayan de debatirse.

8.^a Concluido el plazo de presentación de enmiendas al articulado y a las partidas, la Mesa de la Comisión procederá a su ordenación y las remitirá a la Presidencia de la Cámara, a los Grupos Parlamentarios, a los miembros de la Comi-

sión de Economía y Hacienda y al Gobierno de Navarra. Asimismo, y conforme al artículo 176 del Reglamento, acordará la remisión al Gobierno de las enmiendas que supongan aumento de gastos o disminución de ingresos.

Una vez recibido el correspondiente informe del Gobierno de Navarra, que deberá remitirse en el plazo indicado en el calendario, la Mesa de la Comisión se pronunciará sobre la admisión a trámite de las enmiendas informadas y sobre el resto de las enmiendas presentadas.

9.^a La Presidencia del Parlamento podrá convocar la Comisión de Economía y Hacienda, con menos de veinticuatro horas de antelación, al objeto de iniciar el correspondiente debate.

10.^a El debate y votación en el Pleno de las enmiendas a la totalidad se ajustará a lo establecido en los artículos 101 y 151 del Reglamento.

11.^a Finalizado el debate de totalidad, sin que el Pleno acordase la devolución del Proyecto al Gobierno de Navarra, o no habiéndose presentado enmiendas a la totalidad, se reunirá la Comisión de Economía y Hacienda en el lugar, día y hora señalado por la Presidencia de la Cámara en la convocatoria correspondiente, de acuerdo con la Norma 9.^a.

12.^a En Comisión, se debatirán y votarán en primer lugar los diferentes artículos del Proyecto de Ley Foral de Presupuestos Generales de Navarra para el año 2026, excepción hecha del artículo 2, y las enmiendas presentadas a los mismos.

El debate se sustanciará en un único debate en el que los Grupos Parlamentarios dispondrán de un turno de intervención de 15 minutos, con una réplica de 10 minutos, procediéndose a continuación a la votación. En el caso de la parlamentaria foral no adscrita, si presentara enmiendas, su turno de intervención será de 5 minutos, con una réplica de 3 minutos. El orden de intervención se realizará siguiendo la ordenación de las enmiendas presentadas.

13.^a A continuación, se debatirán y votarán las diferentes categorías de ingresos y gastos que hubiesen sido objeto de enmiendas y las enmiendas presentadas a las mismas. Las que no hubiesen sido objeto de enmiendas serán debatidas y votadas en su conjunto.

El debate se sustanciará en un único debate para cada Departamento en el que los Grupos Parlamentarios dispondrán de un turno de intervención de 15 minutos, con una réplica de 10 minutos, procediéndose a continuación a la votación. En el caso de la parlamentaria foral no adscrita, si presentara enmiendas, su turno de intervención será de 5

minutos, con una réplica de 3 minutos. El orden de intervención se realizará siguiendo la ordenación de las enmiendas presentadas a cada Departamento.

14.^a El plazo para el mantenimiento de enmiendas y votos particulares finalizará a las 17:30 horas del día 16 de diciembre de 2025.

De conformidad con el artículo 159 del Reglamento del Parlamento de Navarra, la Mesa de la Cámara deberá adoptar acuerdo sobre las enmiendas mantenidas y votos particulares formalizados, así como de su posterior traslado a las y los miembros del Pleno para su debate y votación.

15.^a Tras la comunicación del acuerdo de la Mesa sobre las enmiendas mantenidas y votos particulares formalizados, los y las portavoces de los grupos remitirán por e-mail a la Letrada Mayor los bloques de votación separada que se solicitan respecto a las enmiendas mantenidas y votos particulares, teniendo de plazo hasta las 14:00 horas del día 17 de diciembre.

16.^a En el Pleno el dictamen se sustanciará en un único debate de totalidad en el que los Grupos Parlamentarios, de mayor a menor, dispondrán de un turno de intervención de 20 minutos, con una réplica de 10 minutos a favor de los Grupos, de mayor a menor, que no voten a favor del conjunto del proyecto de Ley Foral, procediéndose a continuación a la votación.

La votación se realizará del siguiente modo: en primer lugar, se votarán las enmiendas y votos particulares relativas al articulado; se votarán conjuntamente las presentadas por cada Grupo Parlamentario, salvo que se solicite votación separada de alguno de ellos. Seguidamente, se votará el texto articulado de forma conjunta, excepción hecha del artículo 2 que se votará al final, salvo que se solicite la votación separada de algún precepto.

17.^a A continuación, se votarán las diferentes categorías de ingresos y gastos que hubiesen sido

objeto de enmiendas o votos particulares y las enmiendas y votos particulares relativos a las mismas. Se votarán primero las enmiendas "in voce" admitidas a trámite a las partidas presupuestarias y, seguidamente, el conjunto de las enmiendas mantenidas por los Grupos Parlamentarios comenzando por las mantenidas por el grupo parlamentario con mayor representación. A estos efectos, en caso de que las enmiendas y votos particulares no resultaren aprobadas, se darán por aprobadas las correspondientes líneas objeto de enmienda o voto particular. Finalmente, se votarán las partidas presupuestarias que no hayan sido objeto de enmiendas.

18.^a Si como consecuencia de la aprobación de enmiendas o de la votación de artículos o conceptos de ingresos o gastos, el articulado resultante o los referidos conceptos pudieran ser incongruentes o incompletos con el volumen que comprende la clasificación de los Presupuestos por partidas, la Mesa de la Comisión de Economía y Hacienda y, en su caso, la Mesa de la Cámara, podrán introducir las modificaciones precisas para salvar las incongruencias que hubiesen podido producirse.

19.^a En todo lo no previsto en las presentes Normas, se estará a lo establecido en el Reglamento de la Cámara.

20.^a Las presentes Normas podrán ser modificadas por Acuerdo de la Mesa de la Cámara, de acuerdo con la Junta de Portavoces.

Segundo.- Dar traslado de las presentes Normas a los y las portavoces de los Grupos Parlamentarios, a la Mesa de la Comisión de Economía y Hacienda y al Gobierno de Navarra y ordenar su publicación en el Boletín Oficial de la Cámara.

Pamplona, 3 de noviembre de 2025

El Presidente: Unai Hualde Iglesias

ANEXO I
INSTRUCCIONES PARA LA ELABORACIÓN Y
PRESENTACIÓN DE LAS ENMIENDAS A LOS
PRESUPUESTOS

Enmiendas a la totalidad, al articulado y a las partidas presupuestarias

1.ª El día 5 de noviembre de 2025 se dejará en unidad "P:\\" de la red del Parlamento, en la carpeta denominada "2026Presupuestos", una plantilla de Word denominada "2026_CrearEnmiendasArticulado" para la elaboración de enmiendas a la totalidad y al articulado, y una aplicación Access denominada "2026_CrearEnmiendasPartidas.ACCDB" mediante la cual se generarán las enmiendas a las partidas a presentar al Proyecto de Presupuestos del año 2026. Además en esa carpeta se dejará un manual donde se describirá cómo utilizar ambas herramientas.

La denominación de las nuevas partidas, de los nuevos programas y los nuevos proyectos, no podrá exceder de 117 caracteres, que es el máximo que permite la herramienta SAP y no podrán finalizar con un punto. El importe no admite decimales, ni tampoco podrá ser inferior a 10 euros.

Para atender cualquier duda relacionada con la aplicación, su información y funcionamiento pondrán contactar con Asun Marzal en el teléfono: 1234 o con Txema Arce en el teléfono 1260.

2.ª Los Grupos Parlamentarios y los parlamentarios y parlamentarias deberán firmar mediante certificado digital las enmiendas generadas. Antes de la finalización del plazo, las enmiendas serán presentadas en la sede electrónica del Parlamento, para ello es necesario disponer de un certificado digital de la FNMT.

Enmiendas in voce

Finalizado el plazo ordinario de presentación de enmiendas, se habilitará en la unidad "P:\\" de la red del Parlamento, en la carpeta denominada "2026Presupuestos" una aplicación Access denominada "INVOCE_2026_CrearEnmiendasPartidas.ACCDB" para la elaboración de enmiendas in voce a las partidas, que se utilizará exclusivamente para la formalización de este tipo de enmiendas. Para las enmiendas in voce al articulado se utilizará la plantilla de Word "2026_CrearEnmiendasArticulado".

Para los casos de enmiendas in voce acordadas durante el debate en sesión parlamentaria, existirán en la sala donde se celebre modelos en papel para su cumplimentación.

Mantenimiento de enmiendas y votos particulares

Para el mantenimiento de enmiendas y votos particulares los Grupos Parlamentarios y los parlamentarios y parlamentarias individuales utilizarán la plantilla diseñada para tal fin y que estará disponible en la unidad "P:\\" de la red del Parlamento, en la carpeta denominada "2026Presupuestos". El nombre del documento plantilla es Plantilla_Mantenimiento de enmiendas.doc.

Tratamiento de la codificación de las partidas presupuestarias

1º.- Corrección técnica.

La codificación errónea de partidas enmendadas se subsanará por la Letrada/o y se añadirá como una corrección técnica.

2º.- Cumplimentación técnica.

Las enmiendas de adición a partidas que no tengan codificación, se cumplimentarán por la Letrada/o en colaboración con la Sección de Presupuestos del Departamento de Economía y Hacienda del Gobierno de Navarra. La cumplimentación se referirá exclusivamente al código orgánico, económico y funcional.

3º.- Enmiendas de adición.

Cuando se quiera modificar la codificación de las partidas del proyecto de Presupuestos, se hará mediante enmienda de adición.

Ajustes de estilo de la denominación de las partidas en las enmiendas de adición

En las enmiendas de adición a partidas, los ajustes de estilo de la denominación de las mismas se cumplimentarán por la Letrada/o en colaboración con la Sección de Presupuestos del Departamento de Economía y Hacienda del Gobierno de Navarra.

Los ajustes de estilo que en su caso se trasladan se remitirán al día siguiente del debate en Comisión del Departamento correspondiente y, en todo caso, el día anterior a la aprobación del dictamen.

11-25/LEY-00009. 2026rako Nafarroako Aurrekontu Orokorreari buruzko foru-lege proiektua izapidetzeko egutegia

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 3an eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Lehena.- 2026rako Nafarroako Aurrekontu Orokorreari buruzko foru-lege proiektua izapidetzeko egutegia onestea, zeina hurrengo atalean jasotzen baita. Hona hemen horren laburpena:

* Foru-lege proiektuaren sarrera erregistroa: urriaren 31n.

* Izapidetzeko onartzea (Mahaia eta Eledunen Batzarra): azaroaren 3an.

* Proiektua argitaratzea: azaroaren 5ean.

* Zuzenketak taxutzeko programari buruzko bilera: azaroaren 5ean, 9:00etan.

* Ekonomia eta Ogasuneko Batzordearen lan-bilkura: azaroaren 7an, 12:15ean.

* Osoko zuzenketak aurkezteko epemuga: azaroaren 13an, 12:00etan.

* Osoko zuzenketak onartzea: azaroaren 13a (Batzordearen Mahaiak zehaztuko du ordua).

* Osoko zuzenketak argitaratzea: azaroaren 18an.

* Osoko zuzenketak eztabaidatzeko Osoko Bilkura: azaroaren 20an, 9:30ean.

* Zuzenketa partzialak aurkezteko epemuga: azaroaren 20an, 17:30ean.

* Osoko partzialak ordenatzea: azaroaren 21ean (Batzordearen Mahaiak zehaztuko du ordua).

* Gobernua: azaroaren 21etik 27ra.

* Zuzenketa partzialak onartzea: azaroaren 28an (12:00ak baino lehen, Batzordearen Mahaiak zehaztuko du).

* Artikuluei eta aurrekontuko partidei aurkezturiko zuzenketak argitaratzea: abenduaren 1ean.

* Errekurtsoa jartzeko epemuga: abenduaren 1ean, 9:30ean.

* Eledunen Batzarrak errekurtsoa ebazteko: abenduaren 1ean.

* Batzordeko eztabaida: abenduaren 1etik 12ra bitartean.

* Irizpena onestea: abenduaren 15ean.

* Zuzenketei eta boto partikularrei eusteko epemuga: abenduaren 16an, 17:30ean.

* Legebiltzarreko Mahaia, eutsitako zuzenketen eta boto partikularren berri izan duela adierazteko: abenduaren 17an, 10:00etan.

* Legelari nagusiari e-mailez bidalitako idazkia, eutsitako zuzenketei eta boto partikularrei buruz eskatzen diren bozketa-multzoak jakinarazteko: abenduaren 17an, 14:00etan.

* Irizpena argitaratzea, zuzenketa eta boto partikularrekin batera: abenduaren 18an.

* Osoko Bilkura: abenduaren 18an, 09:30ean.

Bigarrena.- 1. 2026rako Nafarroako Aurrekontu Orokorreari buruzko foru-lege proiektua 2025eko azaroaren 5eko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuta, osoko zuzenketak aurkezteko epea azaroaren 13an bukatuko da, 12:00etan, eta artikuluei eta partidei zuzenketak aurkezteko epea, azaroaren 20an, 17:30ean.

2. Zuzenketak aurkezteko epe horren barruan, Ekonomia eta Ogasuneko Batzordearen lan-bilkura deituko da, azaroaren 7rako, 12:15ean. Bertan Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak parte hartuko du, egoki deritzen zuzendari nagusi eta teknikariek batera.

3. Osoko zuzenketarik baldin badago, Ekonomia eta Ogasun Batzordeko Mahaiak izapidetzeko onartuko ditu, eta Parlamentuko lehendakari zara bidaliko ditu azaroaren 13an. Balizko osoko zuzenketen eztabaida eta bozketa azaroaren 20ko Osoko Bilkuran egingen da.

4. Azaroaren 21ean, Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeko Mahaiak ordenatu egingen ditu artikuluei eta partidei aurkeztutako zuzenketak eta, kasua bada, Nafarroako Gobernuari igorriko dizkio gastu-gehikuntza edo diru-sarrearen murrizketa dakarten zuzenketak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 176. artikuluan eta horri loturikoetan adierazitako moduan.

5. Azaroaren 28an, Batzordeko Mahaiak zuzenketak onartuko ditu, bai eta, kasua bada, Nafarroako Gobernuak txostena egin duenekoak ere. Batzordeko Mahaiak zuzenketak izapidera ez onartzeko hartutako erabakiaren kontra errekurtsoa aurkeztu ahaliko zaio Eledunen Batzarrari, Erregelamenduko 149.2 eta 176.3 artikuluekin bat. Errekurtsoa aurkezteko epea abenduaren 1eko 9:30ean bukatuko da.

6. Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeak abenduaren 1ean bilera hasiko du, eta haren eztabaidak abenduaren 12an bukatu beharko dute. Irizpena abenduaren 15ean onetsiko du.

7. Zuzenketei eta boto partikularrei eusteko epea abenduaren 16ko 17:30ean bukatuko da.

8. Abenduaren 17an Legebiltzarreko Mahaiak adieraziko du eutsitako zuzenketa eta boto partikularren berri izan duela, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 159. artikuluan adierazitako moduan, eta Osoko Bilkurako kideei igorriko dizkie.

9. 2025eko abenduaren 18ko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatuko da 2026rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru-lege proiektua.

Hirugarrena.- Erabaki hau igortzea talde parlamentarioen eledunei, Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeko Mahaiko kideei eta Nafarroako Gobernari, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2025eko azaroaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/LEY-00009. 2026rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru-lege proiektua eztabaidatu eta bozkatzeko arauak

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrarekin bat, erabaki hau hartu zuen, bestek beste:

Ikusita 2026rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru-lege proiektua, Nafarroako Gobernuaren 2025eko urriaren 31ko Erabakiaren bidez Legebiltzarrari igorria eta Parlamentuko Erregistro Orokorrean 2025eko urriaren 31n sartua, Erregelamenduko 174. eta 177. artikuluekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

Lehena.- 2026rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru-lege proiektua –"proiektua", aurrerantzean– eztabaidatu eta bozkatzeko honako arau hauek onestea.

1. Proiektua, Mahaiak izapidetzeko onartu ostean, Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeari igorriko zaio, horrek irizpena eman dezan.

2. Proiektua Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta argitaratzearekin batera, epe bat irekiko da, 2025eko azaroaren 13ko 12:00etan bukatuko dena, zeinean talde parlamentarioek eta foru parlamentariak bere izenean osoko zuzenketak aurkeztu ahalko baituzte. Beste epe bat ere irekiko da, 2025eko azaroaren 20ko 17:30ean bukatuko dena, artikuluei eta partidei zuzenketak aurkeztu ahal izateko, 3. arauan xedaturikoa aintzat hartuz. Aipatu zuzenketak Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeko Mahaiari zuzenduko zaizkio.

3. Zuzenketak honelakoak izan ahalko dira:

a) Proiektu osoari aurkeztuak. Proiektua Nafarroako Gobernari itzultzeko proposatuko dute, eta hari eskatuko diote hasierako proiektuaren oinarri izan zirenez bestelako printzipio batzuetan oinarritutako proiektu bat prestatzeko.

Departamentu baten edo Programa eta Ekonomia Korrelazioa izenekoan ageri diren entitateetako baten programa-multzo osoa ukitzen duten zuzenketak proiektua Gobernari itzultzeko osoko zuzenketa gisa aurkeztu beharko dira.

Osoko zuzenketak egiteko, "2026_CrearEnmiendasArticulado" Word-eko plantilla erabiliko da. Zuzenketa horiek egiteko, aintzat hartuko dira I. eranskinean jasotako jarraibideak.

b) Proiektuaren edozein artikuluri aurkeztuak.

Artikuluei aurkezturiko zuzenketak egiteko, "2026_CrearEnmiendasArticulado" Word-eko plantilla erabiliko da. Zuzenketa horiek egiteko, aintzat hartuko dira I. eranskinean jasotako jarraibideak.

c) Proiektuaren barruko edozein "programa", "proiektu" zein "partida"ri aurkeztuak.

Aurrekontu-partidei aurkeztekoak diren zuzenketak egiteko, "2026_CrearEnmiendasPartidas.ACCDB" izeneko aplikazio informatikoa erabiliko da. Zuzenketa horiek egiteko, aintzat hartuko dira I. eranskinean jasotako jarraibideak.

4. Kontzepturen batean gastuak gehitzea edo diru-sarrerak gutxitzea dakarten zuzenketek Nafarroako Gobernuaren aurretiazko onespina beharko dute izapidetzera onartuak izateko. Hala ere,

aipatu onespina ez da derrigorrezkoa izanen aurkeztutako zuzenketak zehazten baldin badu zein diren proiektuan jadanik izendaturiko baliabideak, gastu gehikuntza edo diru-sarreraren gutxitzea finantzatzekoak.

Batzordean aurkezten diren eta kontzepturen batean gastuak gehitzea edo diru-sarrerak gutxitzea dakarten "in voce" zuzenketek Nafarroako Gobernuaren aurretiazko onespina beharko dute izapidetzera onartuak izateko. Horretarako, egun bateko epea ezarriko da gutxienez, eta Mahaiak erabakiko du epe hori. Nafarroako Gobernuak ez badu erantzunik ematen epe horretan, izapidezarekin ados dagoela ulertuko da.

Ados egote hori, hala ere, ez da derrigorrezkoa izanen baldin eta aurkeztu den zuzenketak gastu gehikuntza edo diru-sarreraren gutxitzea finantzatzeko baliabideak, proiektuan izendaturik behar dutenak, zehazten baditu, Erregelamenduaren 176.2 artikulua xedatzen duenez.

5. Proiektuari aurkeztutako zuzenketek ezin dute inola ere murrizketarik proposatu Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legeko 47. artikuluko 1. apartatuko a), b), c) eta e) letretan jasotako kreditu zabalgarrietarako aurreikusitako kontsignaziorako, eta horrelako zuzenketarik aurkezten baldin bada, onartu gabe utziko da.

6. Zuzenketak aurkezteko epea bukatu baino lehen, Parlamentuko lehendakariak Ekonomia eta Ogasuneko Batzordearen eta arlo horretaz ardurtzen den kontseilariaren arteko lan bilerarako deia egingen du; zuzendari nagusiekin eta egoki iritzitako teknikariekin bertaratu daiteke aipatu kontseilaria.

7. Osoko zuzenketarik aurkeztu baldin bada, Batzordeko Mahaiak iritzia emanen du horiek izapidetzera onartzeari buruz, eta batzordeburuak Parlamentuko lehendakariari bidaliko dizkio, eztabaidatu behar direneko Osoko Bilkuraren gai zerrendan sar ditzan.

8. Artikuluei eta partidei zuzenketak aurkezteko epea amaitu ondoren, Batzordeko Mahaiak zuzenketak ordenatuko ditu eta igorriko dizkie Parlamentuko lehendakariari, talde parlamentarioei, Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeko kideei eta Nafarroako Gobernuari. Halaber, Erregelamenduaren 176. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, erabakiko du Gobernuari igortzea gastu-gehikuntza edo diru-sarreraren murrizketa dakarten zuzenketak.

Nafarroako Gobernuak txostena egin beharko du eta egutegian adierazitako epean bidali beharko du. Txostena jaso ondoren, Batzordeko Mahaiak

iritzia emanen du Gobernuak txostena egin dueneko zuzenketak izapidetzera onartzeari buruz eta aurkeztutako gainerako zuzenketei buruz.

9. Parlamentuko lehendakariak zilegi izanen du hogeita lau ordu baino gutxiagoko aurrerapenarekin dei egitea Ekonomia eta Ogasuneko Batzordearen bilerara, kasuko eztabaidari ekiteko.

10. Osoko zuzenketen eztabaida eta bozketa Erregelamenduko 101. eta 151. artikuluek ezarritakoaren arabera egingen da Osoko Bilkuran.

11. Osoko eztabaida bukatu eta Osoko Bilkurak proiektua Nafarroako Gobernuari itzultzea erabaki ez badu, edo osoko zuzenketarik ez bada aurkeztu, Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeak bilera egingen du, 9. arauarekin bat Legebiltzarreko Lehendakariak kasuko deialdian finkaturiko toki, egun eta orduan.

12. Batzordean, honako hauek eztabaidatu eta bozkatuko dira lehenbizi: 2026rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru-lege proiektuaren artikulua, 2. artikulua salbu, eta horiei aurkeztu zaizkien zuzenketak.

Eztabaida bakarra izanen da, eta talde parlamentarioek 15 minutuko hitz egiteko txanda izanen dute, eta 10 minutuko ihardespen-txanda. Ondoren, bozketa egingen da. Atxiki gabeko foru parlamentariaren kasuan, zuzenketak aurkezten baditu, bere hitz egiteko txanda 5 minutukoa izanen da, eta ihardespen-txanda 3 minutukoa. Hitz egiteko ordena aurkeztutako zuzenketen hurrenkeran egingen da.

13. Horren ondoren eztabaidatu eta bozkatuko dira zuzenketen xede izan diren diru-sarrera eta gastu kategoriak eta haien aurkeztutako zuzenketak. Zuzenketarik jaso ez duten guztiak batera eztabaidatu eta bozkatuko dira.

Eztabaida bakarra izanen da Departamentu bakoitzerako, eta talde parlamentarioek 15 minutuko hitz egiteko txanda izanen dute, eta 10 minutuko ihardespen-txanda. Ondoren, bozketa egingen da. Atxiki gabeko foru parlamentariaren kasuan, zuzenketak aurkezten baditu, bere hitz egiteko txanda 5 minutukoa izanen da, eta ihardespen-txanda 3 minutukoa. Hitz egiteko ordena Departamentu bakoitzari aurkeztutako zuzenketen hurrenkeran egingen da.

14. Zuzenketei eta boto partikularrei eusteko epea 2025eko abenduaren 16ko 17:30ean bukatuko da.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 159. artikuluekin bat, Legebiltzarreko Mahaiak

erabaki bat hartu beharko du eutsitako zuzenketei eta formalizatutako boto partikularrei buruz, bai eta Osoko Bilkurako kideei igortzeaz ere, horiek eztabaidatu eta bozkatzeko.

15. Eutsitako zuzenketei eta formalizatutako boto partikularrei buruz Mahaiak hartutako erabakia jakinarazi ostean, talde parlamentarioetako eledunek legelari nagusiari e-mailez igorriko dizkiote eutsitako zuzenketetarako eta boto partikularretarako eskatzen diren bozketa bereiziko multzoak; horretarako epea abenduaren 17ko 14:00etan amaituko da.

16. Osoko Bilkuran irizpenaren osoko eztabaida bakarra egingen da, zeinean talde parlamentarioek, handienetik txikienerako hurrenkeran, 20 minutuko hitz egiteko txanda izanen baitute. Horren ondoren 10 minutuko ihardespentxanda izanen dute lege proiektuaren alde bozkatuko ez duten talde parlamentarioek, handienetik txikienerako hurrenkeran. Jarraian, bozketa egingen da.

Bozketa honela egingen da: lehendabizi, artikuluei aurkezturiko zuzenketa eta boto partikularrak bozkatuko dira; talde parlamentario bakoitzak aurkezturiko guztiak batera bozkatuko dira, salbu eta horietakoren bat bereizita bozkatzeko eskatzen bada. Ondotik, testu artikuluduna bozkatuko da bere osotasunean, salbu eta 2. artikulua, zeina amaieran bozkatuko baita, non eta ez den eskatzen arauren baten bozketa bereizita egitea.

17. Horren ondoren bozkatuko dira zuzenketen edo boto partikularren xede izan diren diru-sarrera eta gastu kategoriak eta haiei buruzko zuzenketak eta boto partikularrak. Lehenbizi bozkatuko dira aurrekontu-partidei aurkeztutako eta izapidetara

onarturiko Osoko Bilkurarako "in voce" zuzenketak, eta, gero, talde parlamentarioek mantendutako zuzenketa guztiak, ordezkari gehien dituen taldeak mantendu dituenetatik hasita. Horretarako, zuzenketak eta boto partikularrak onesten ez badira, zuzenketa edo boto partikular horien xede izan diren aurrekontu-lerroak onetsizat emanen dira. Azkenik, zuzenketarik aurkeztu ez zaien aurrekontu-partidak bozkatuko dira.

18. Baldin eta zuzenketak onestearen edo artikulua edo diru-sarreraren nahiz gastuen kontzeptuak bozkatzearen ondorioz suertatu diren artikuluen multzoa edo kontzeptu horiek kontraesanekoak edo osatugabeak gertatzen badira aurrekontuak partidaka sailkatzen dituen liburukiarekin alderatuta, Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeko Mahaiak eta, kasua bada, Legebiltzarreko Mahaiak, behar diren aldaketak sartzen ahalko dituzte, gertatu ahal izan litezkeen kontraesanak zuzentzeko.

19. Arau hauetan aurreikusita ez dagoen guztian, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakolari jarraituko zaio.

20. Arau hauek aldatu ahalko dira Legebiltzarreko Mahaiak Eledunen Batzarrarekin adosturiko erabakiaren bidez.

Bigarrena.- Arau hauek talde parlamentarioen eledunei, Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeko Mahaiari eta Nafarroako Gobernuari igortzea, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agintzea.

Iruñean, 2025eko azaroaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

I. ERANSKINA

AURREKONTUEI ZUZENKETAK PRESTATU
ETA AURKEZTEKO JARRAIBIDEAKOsoko zuzenketak eta artikuluei nahiz aurrekontu-partidei aurkezturikoak

1. 2025eko azaroaren 5ean, Parlamentuko sareko "P:\\" unitatean, "2026Presupuestos" izeneko karpetan, ipiniko dira "2026_CrearEnmiendasArticulado" izeneko Word-eko plantilla bat, osoko zuzenketak eta artikuluen zuzenketak prestatzekoa, eta Access aplikazio bat, "2026_CrearEnmiendasPartidas.ACcdb" izeneko, zeinaren bitartez prestatuko baitira 2025erako aurrekontuen proiektuko partidei aurkeztu beharreko zuzenketak. Horrez gain, karpeta horretan argibide-dokumentu bat utziko da, programa horiek nola erabili behar diren azaltzen duena.

Partida, programa eta proiektu berrien izenak ezin izanen dira 117 karaktere baino luzeagoak izan, hori baita SAP tresnak ahalbidetzen duen gehienekoa, eta ezin izanen dira puntu batez bukatu. Zenbatekoak ez du hamarrenik onartzen, eta ezin izanen da izan 10 euro baino txikiagoa.

Aplikazioarekin eta horren informazio eta funtzionamenduarekin zerikusia duen edozein zalantza argitzeko, Asun Marzalengana jo daiteke (telefonoa: 1234) edo Txema Arcerengana (telefonoa: 1260).

2. Talde parlamentarioek eta foru parlamentariariek ziurtagiri digital baten bitartez sinatu beharko dituzte egindako zuzenketak. Epea bukatu aitzin, Parlamentuko egoitza elektronikoa aurkeztuko dira zuzenketak. Horretarako, beharrezkoa da Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiri digital bat edukitzea.

In voce zuzenketak

Zuzenketak aurkezteko epe arrunta bukatuta, Parlamentuko sareko "P:\\" unitateko "2026Presupuestos" karpetan Access aplikazio bat ipiniko da, "INVOCE_2026_CrearEnmiendasPartidas.ACcd B" izeneko, partidei in voce zuzenketak egitekoa, eta zuzenketa mota hau prestatzeko baizik ez da erabiliko. Artikuluei in voce zuzenketak egiteko, "2026_CrearEnmiendasArticulado" izeneko Word-eko plantilla erabiliko da.

Bilera parlamentarioko eztabaidan adostutako in voce zuzenketetarako, bilera-aretoan eskuragarri egonen dira horien datuekin bete beharreko paperezko ereduak.

Zuzenketei eta boto partikularrei eustea

Zuzenketei eta boto partikularrei eusteko, talde parlamentarioek eta banakako foru parlamentariariek horretarako diseinaturik dagoen plantilla erabiliko dute, zeina eskuera izanen baitute Parlamentuko sareko "P:\\" unitateko "2026Presupuestos" izeneko karpetan. Hauxe da plantilla-dokumentuaren izena: Plantilla_Mantenimiento de enmiendas.doc.

Aurrekontu-partiden kodifikazioaren tratamendua

1. Zuzenketa teknikoa.

Zuzendutako partiden kodifikazio okerra legegariak zuzenduko du, eta zuzenketa tekniko gisa gehituko da.

2. Osatze teknikoa.

Kodifikaziorik ez duten partidei aurkeztutako gehitzeko zuzenketak legegariak osatuko ditu Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Aurrekontuen Atalarekin lankidetzan. Osatze hori kode organikoari, ekonomikoari eta funtzionalari buruzkoa izanen da soil-soilik.

3. Gehitzeko zuzenketak.

Aurrekontu-proiektuko partiden kodifikazioa aldatu nahi denean, gehitzeko zuzenketa baten bidez egingen da.

Gehitzeko zuzenketetako partiden izenatarako estilo-doikuntzak

Partidei egindako gehitzeko zuzenketetan, partiden izenatarako estilo-doikuntzak legegariak osatuko ditu Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Aurrekontuen Atalarekin lankidetzan.

Helarazten diren estilo-doikuntzak, halakorik balego, dagokion departamentuaren batzordean eztabaidatu eta hurrengo egunean igorriko dira, eta, betiere, irizpena onetsi aurreko egunean.